



EBAZPENA, 2019ko uztailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko zuzendariarena; honen bidez, oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak argitara ematen dira (Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitutako hautaketa-prozeduretan)

Hezkuntzako sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretarako deia egin zen.

Aipatutako Aginduaren 10.1.1 eta 10.2.1 oinarriek zehazten dutenarekin bat etorritz, aldi bakoitzeko puntuazioak atera eta ponderatu ondoren, Hautaketa batzordeak oposizio-aldian eskatutako gutxienezko puntuazioa lortu duten izangaiei lehiaketa-aldiko puntuazioak gehituko dizkiete, eta ordenatu egingo dituzte, prozedura, txanda eta espezialitateetan, lortutako puntuazio globalaren arabera. Eta hautatuak izango dira aukeratutako prozeduran, txandan eta espezialitatean deitutako lanpostu-kopuru osoaren berdina edo txikiagoa den hurrenkera zenbakia badute.

Aipatutako Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren 10.3 oinarriak zehazten duenarekin bat etorritz,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Argitaratzea Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoetan sartzeko eta hizkuntza-eskola ofizialetako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak (Hautaketa-prozedurak Hezkuntza sailburuaren 2019ko martxoaren 1eko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.- Oposizio-lehiaketa gainditu duten izangai hautatuen behin-behineko zerrendak ondorengo lekuan emango dira argitara:

<http://www.irakasle.eus> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartu behar dira):
“2019ko EPE. Maisu-maistrak, kontserbatorioak eta HEO” → “Hautaketa-prozesuaren jarraipena” → kidegoa eta espezialitatea adierazi behar dira → Hautespen Batzorde” → “Deituren arabera zerrenda” / “Puntuazio arabera zerrenda” / “Aukeratze arabera zerrenda” (hautatutako izangaiek “Adjudikazio” zutabearen “2HE/PL2” dutenak dira)

Hirugarrena.- Behin-behineko zerrenda hauen aurka izangaiek erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute, egon daitezkeen akatsengatik, bi laneguneko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 23an
Langileak Kudeatzeko zuzendaria,

JON AGIRRE HUERGA